

# JON AUSARTA

[ialday@irakasle.net](mailto:ialday@irakasle.net)

Iñaki Aldai

## PERTSONAIAK

- |            |                  |              |
|------------|------------------|--------------|
| . Erregea  | . Gizona 2       | . Mamuak (3) |
| . Alaba    | . Sorginak (2)   | . Kontalaria |
| . Jon      | . Eskeletoak (2) |              |
| . Gizona 1 | . Banpiroak (2)  |              |

\* Pertsonai kopurua moldatu daiteke. Gutxienez 9-10 pertsonai behar dira. Pertsonaiak gehitzeko ez dago arazorik (Eskeletoak, mamuak, sorginak...

\*3. mailatik aurrera egiteko antzerkia

\* "Juan sin miedo" ipuinean oinarrituta.

**Kontalaria:** Behin baten, urrutiko herrialde batean, erregeak gizon harrigarri bat aukeratu nahi zuen hurrengo erregea izateko.

**Erregea:** Mirentxu maitea, zurekin ezkonduko den hurrengo erregea gizon ausarta izan behar du. Nire modukoa, beldurrik ezagutzen ez duena.

**Alaba:** Aita, ez dago horrelakorik. Guztiok gara zerbaiten beldur.

**Erregea:** Hara bestea! Ez duzu urrutira joan beharrik. Ni neu ez naiz ezerren beldur.

**Alaba.** Aita, aspalditik ezagutzen garela...

Erregea: Aizu, zer esan nahi duzu?  
Ni ausartenetan ausar....

*(Momento horretan trumoiaren hotsa entzuten da eta argiarekin tximistak adierazten dira).*

Erregea: *(alabarengana hurbilduz besotik heltzen du ikaratuta).*  
Ai ene, zer izan da hori? Zerua buru gainera etorri behar zaigula uste dut!

Alaba: Ez zinen, bada, ausartenetan ausartena? Trumoiia besterik ez da izan.

Erregea: Noski, noski, trumoiia. Bromatxoa baino ez da izan. Tira, tira, esaten ari nintzena, hurrengo erregea ausarta izango da.  
Beldurraren gazteluan egun osoa pasatzea lortzen duenak, zurekin ezkonduko da eta errege izendatuko dut.

Kontalaria: Hiru gizon aurkeztu ziren gazteluan egun osoa pasatzeko asmoz.

Gizona 1: *(Besteak zirikatu eta harrokeriekin hasten da)* A ze beldurra beldurraren gazteluan. Ene, zer gertatuko ote zaigu? *(Bapatean, Jon-i susto txikia ematen saitzen da)*  
Uuuuhh!!! Ja, ja, ja. Apurtxo bat beldurtu egin zara, eh?

Jon: Utzi txorakeriak egiteari.

Gizona 1: Ui, ui, uiiii... Norbait urduritzen hasia dago.

*(Momento horretan bi sorgin sartzen dira. Bata erratz baten gainean, eta bestea sagar otar bat eskuan daramala.)*

Sorgina 1: Ja, ja, ja. Sorginkeri hoberenak egiten dituen sorgina naiz.

Gizona 1: So.... so.... so... sorginak!!!

Sorgina 2: Neu naiz sorginkerietan trebeena!

Gizona 1: Be... be... be.... Benetakoak!!!

Sorgina 1: *(Sorgina 2 ri zuzenduz)* Ikusi eta ikasi hitzen sorginkeria.

*(Gizonei zuzenduz)* Baga biga higa  
Laga boga sega  
Sai soi bele  
Olio zopa  
Kikili salda  
Hikimilikiliklik!

Gizona 1: So... so... sorginkeriaaaaa!!! Banoa hemendik!!! Aaaahhh!!!!

Sorgina 1: Eta zuek biok, ez zarete beldurtzen?

Jon: Hori al da egiten dakizuen guztia?

Sorgina 1: Arraioa! Hitzen sorginkeriak ez du zuekin funtzionatu.

Sorgina 2: Hori txoropitokeria. Ez dago sagarraren sorginkeria bezelakorik.

Ezetz ausartu sagarrari haginkadatxo bat ematen.

Jon: Sagarra? Ummmm, bai goxoa. *(sagarra hartu eta haginkada haundiak emanaz jaten hasten da).*

Ederra dago benetan.

Sorgina 2: Baina... baina ez dizu lo egiteko gogorik ematen?

Jon: Lo egiteko gogoaz? Bai zera! Sagarrek indarberritu egiten naute. Emango al didazu beste bat?

Sorgina 2: Beste bat? Ez dut ezertxo ere ulertzen.

Jon: Sagarrak ez badidazue eman behar, utziko didazue, gutxienez erratza?

Sorgina 1: Zertarako behar duzu erratza?

Jon: *(Erratza hartu eta sorginei astinduak ematen hasten da).*  
Honetarako! Alde hemendik sorgin petral halakoak!!!

Sorgina 1+2: Aiiii, aiiii... goazen hemendik!!!

Gizona 2: Hori tontokeria hori sorginkeriena. Horren beldur izatea ere... Ni ez naiz ezerren beldur.

*(Kanpai hotsa entzuten da eta eszenatokira 2 eskeleto sartzen dira)*

Gizona 2: Eske... eske... eske... eskeletoak!!!

Eskeletoa 1: Gazteluko eskeletoak gara!

Gizona 2: be... be... be... benetakoak!!!

Eskeletoa 2: Argi ibili lepoa galdu nahi ez baduzue.

Gizona 2: Aaaaahhhh!!! Hau beldurra! Banoa hemendik! Aaaaaahhhh!  
*(Korrika eszenatokitik ateratzen da).*

Jon: Baina gizonak, a ze itxura tristeak daukazuen.

Eskeletoa 1: Arraioa! Ez al zara beldur?

Jon: Beldur? Hain zaudete argalak pena baino ez duzuela ematen.

Eskeletoa 2: Ez gara argalak, beldurgarriak gara!

Jon: Baita zera ere! indar tantarik ez duzue eta.

Eskeletoa 1: Aizu, errespeto bat.

Jon: Ea, ikus dezagun gihar txikienik duzuen.

*(Jonek Eskeleto bat heldu, eta esku batekin iztar eta besoak aztertzen hasten da).*

Eskeletoa 2: Ai, ai, ai. Ez estutu horrenbeste, min ematen didazu.

Jon: Hara! Esaten nuena. Ez giharrik, ez indarrik ez ezer ere ez. Zuek piska bat gehiago jan behar duzue indartzeko.

*(Sorginek ekarritako otarretik sagar bana ematen die).*

Jon: Tori sagarra eta jan ezazue.

Eskeletoa 1: Guk ezin dugu ezer jan. Kalte egiten digu.

Jon: Ze kalte eta ze otxokuarto! Jateko esan dizuet, ea indar apur bat hartzen duzuen.

*(Eskeletoak jaten hasten dira, baina jarraian eztulka dihardute).*

Eskeletoa 2: Atxis! Atxis! Ai, ai, hau tripako mina!

Eskeletoa 1: Ai, ai, hotzikarak ere sortu zaizkit.

Jon: Noski, horren argal egonda jakina hotz izatea. Tori, nire jaka eta txapela utziko dizuet.

*(Eskeleto 1eri jaka jazten dio, eta eskeleto 2ri txapela).*

Eskeleto 1: Baina, baina... ikusi duzu nolako itxura daukagun?

Eskeleto 2: Lagunek barre egingo digute.

Jon: Aizue, ni zuei lagundu nahian, eta zuek kexatu baino ez duzue egiten. Badakizue zer?

Eskeletoa 1+2: Zer?

Jon: Aspertu naizela zuekin egoten. *(Erratzarekin eskeletoak astintzen hasten da)*. Alde hemendik!!!

Eskeletoa 1+2: Aaaahhh!!! Goazen hemendik!!! Aaaaahhhh!!!

*(Ondoren bi banpiro sartzen dira Eszenatokira)*

Banpiroa 1+2: Uuuuuu gazteluko banpiroak gara.

Jon: Gazteluko zer?

Banpiroa 1+2: Gazteluko banpiroak!

Jon: Zer da banpiro bat?

Banpiroa 1: Guk lepoan koska egin eta odola edaten dugu.

Banpiroa 2: Ez al zara beldurtzen?

Jon: Beldurtu? Aizue, nik uste dut medikura joan beharko zinetela.

Banpiroa 1+2: Medikura?

Jon: Bai, aurpegian, oso kolore zimela duzue.

*(Poltsikotik linterna bat ateratzen du. Banpiro bat heldu eta linternarekin aurpegia aztertzen hasten da).*

Banpiroa 1: Ai ,ai, ai. Utzi, utzi bakean. Ez guri argirik zuzendu!

Jon: Esaten nuena. Oso kolore zuria daukazue.

Banpiroa 2: Ez al dakizu argiak kalte egiten digula?

Jon: Argiak kalte? Bai zera. Badakit! Zuei "C" bitamina da falta zaizuena. Horregatik zaudete hain zuri.

Banpiroa 1: Zoratuta zaude?

Jon: Egon lasai. Oraintxe bertan laranja zukua aterako dizuet.

*(Tetrabrik ontzi bat ireki eta bi edalontzitara laranja zuka isuritzen du. ondoren bakoitzari baso bana ematen die).*

Banpiroa 2: Ezin dugu horrelakorik edan.

Banpiroa 1: Odola bakarrik edan dezakegu.

Jon: Txorakeriak. Edan.

Banpiroa 2: Baina...

Jon: Edateko!

*(Edan egiten dute. Nazka keinuak eta eztulka hasten dira).*

Banpiroa 1: Esan dizugu kalte egiten digula!

Jon: Aizue, ni zuei lagundu nahian, eta zuek kexatu baino ez duzue egiten. Badakizue zer?

Banpiroa 1+2: Zer?

Jon: Aspertu naizela zuekin egoten. *(Erratzarekin banpiroak astintzen hasten da)*. Alde hemendik!!!

Banpiroa 1+2: Aaaahhh!!! Goazen hemendik!!! Aaaaahhh!!!

Jon: Hau nekea. Horrenbeste joan etorrirekin.... Lo kuluskatxo egingo dut. *(Etzan egiten da)*  
Hau hotza. Ezin lorik egin horrela.

*(Hiru mamu eszenatokian sartzen dira).*

Mamuak: Gazteluko mamuak gara!!!

Jon: kaixo gazteluko mamuak.

Mamua 1+2+3? Ez al zara beldurtzen?

Jon: Beldurtu? Faborez...  
Laranja zuku bat nahi? Sagar goxo bat?

Mamua 1: Ez, ez, eskerrik asko. Zu beldurtzera etorri gara.

Jon: Begira, tratu bat egingo dugu. Ni beldurtu egingo naiz eta zuek berriz, mesedetxo bat egin beharko didazue. Ados?



- Mamua 1: Tratua?
- Mamua 2: beldurtu egingo zara?
- Mamua 3: Tira, tira. Besterik ez bada, ados gaude.
- Jon: Ongi da. Beldurtu egingo naiz.  
*(Gehiegizko keinuak egiten hasten da).*  
Ai... uuuiiii... hau beldurra. Ikaragarrizko beldurra. Mamu hauek beldur mundiala ematen dute. Mundiala ez, unibertsala!!! Ai ama, ai ama.
- Mamua 1: Hori ez da beldurtzea
- Mamua 2: Pailazokeriak egiten zabilta.
- Mamua 3: Antzerkia egiten ari zara! Horrek ez du balio. Benetan beldurtu behar zara!
- Jon: Aizue, nire esku zegoena egin dut. Saiatu naiz beldurtzen... Beno, orain nire mesedea.
- Mamua 2: Zein da mesede hori?
- Jon: Lo piskatxo bat egin nahi dut, baina hemen hotz galanta dago. Nire jaka eskeleto batzuei emana diet. Utziko didazue mesedez zuen izarak siestatxoa egiteko?
- Mamua 3: Baina, baina... Zu burutik jota zaude. Ezta pentsatu ere.
- Jon: Tratuko nire zatia bete dut. Orain zuen txanda da.
- Mamua 1+2+3: Ezetz!!!
- Jon: hasarretu naiz oraingoan ere!

*(Mamu bakoitzari izaratik tirakada bana egiten die eta izarak kentzen dizkie. Mamuak barruko kamiseta eta kantzontilo luzeetan gelditzen dira)*

Mamua 1+2+3: Hau lotsa! Goazen hemendik. *(Eszenatokitik korrika ateratzen dira).*

Jon: Bai, segi, segi hemendik, ea bake apur bat daukagun eta lo kuluxka bat egin ahal dudan oraingoan.

*(Etzan, izarekin estali eta lo gelditzen da. Ondoren oin puntetan alaba sartzen da eszenatokira. Ur botila bat darama eta lo dagoen Jonen aurpegira isuritzen hasten da. Jon bat batean esnatu, zistu bizian altxatu eta urduri hitz egiten hasten da).*

Jon: Zer... zer... zer gertatzen da hemen? Hau hotz ikara, hau estutasuna. Ze arraio pasatu da? Ene, ene, hau dardara, hau egonezina.

Alaba: Beldur zara. Besterik ez.

Jon: Beldur? Hau al da beldurra? Baina, ni ez naiz ezerren beldur.

Alaba: Azkenean zuk ere ezagutu duzu beldurra. Batzuk munstroen beldur, besteak iluntasunaren beldur, hurrengoak ekaitzen beldur eta haratagoak mamuen beldur. Guztiok gara zerbaiten beldur. Ez da ezer gertatzen horregatik.

Kontalaria: Inork proba pasatu ez zuenez, eta erakutsitako trebeziarengatik erregearen alaba erregeña bihurtu zen.